

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida



2020ko EUSKARALDIKO
IZEN EMATEAK ZABALIK.
AHOBIZI ALA BELARRIPREST?



Zk. 190 / Udazkena 2020 urria
www.zizurkil.eus / 943 691012
Ernio Bidea 9A, behe, 20159 ZIZURKIL


LIBURUTEGIA

BIBLIOTECA

2020-10-06
IRAKURKETA KLUBA
TERTULIA gazteleraz
MONICA LEIVAre eskutik.
18:30ean
ORGULLO Y PREJUICIO liburua
TERTULIA EN CASTELLANO

2020-10-24
**LIBURUTEGIEN
NAZIOARTEKO
EGUNA**
IPUIN
KONTAKETA
KONTALARI
2ren eskutik
11:30ean.

TOLOSALDEA SAHARAREKIN



2020-10-10
KARABANA SOLIDARIOA
Zizurkilgo Plazan, 10:00etatik
13:00etara.

Aurtengoan ez dira ume
sahararrak Tolosaldera etorri,
Covid19a dela medio.
Kanpalekuetako egoera gogorra
da eta eskola materiala,
eskuzorroak, gel
hidroalkoholikoak eta maskarak
biltzeko erronka martxan da.
Animatu eta ekarri ahal duzuna,
bihotzez eskertuko dizute!

RECOGIDA SOLIDARIA PARA EL SAHARA

DIRULAGUNTZAK

AYUDAS

• **EUSKARA
IKASTEKO:** aurten ere
Zizurkilgo udalak
herrian bertan euskara
ikasi nahi dutenei
lagunduko die.

BALDINTZAK:
Zizurkilen erroldatua
egotea eta %85eko
asistentzia ziurtatzea.
Matrikularen %75a
(gehienez ere,
pertsonako 400 €)
jasotzeko aukera izango
da (Autoikaskuntzaren
kasuan, asistentziaren
%85a mintzapraktiken
araberakoa izango da).

EUSKARA

MINTZALAGUNA:
astean behin ordubete, ingurune lasai eta giro atsegina, jende berria
ezagutzeko gogo, hiru pertsonako taldeak (bi euskaldun berri eta
zahar bat). Guk lagunduko dizugu! Urrian zehar izena eman dezakezu.
Informazio gehiago udal bulegoetan eta 943 691012 (4. luzapena)
telefono zenbakian.



TEODORO HERNANDORENA XIX. IPUIN LEHIAKETA:
Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta,
Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango
dute, bost maila ezberdinetan: A maila: 6-8 urte; B maila: 9-11
urte; C maila: 12-13 urte; D maila 14-16 urte; eta E maila: 17
urtetik gora. Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko
dira, azaroaren 20ko eguerdiko 14:00ak baino lehen
Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude
bertan.

KIROLA

ZATOZ ESKOLA KIROLARA!

ESKOLA KIROLA ETA KIROL ESKOLEN HASIERA:

Urriaren erdialdetik aurrera martxan jarriko dira ESKOLA KIROLA eta KIROL ESKOLEN dinamikak. Bertan parte hartzen duten haur guztiei zehazten diren segurtasun neurriak errespetatzeko deia egiten zaie.



EMAKUME PILOTARI

Zizurkilgo Intxaur Frontoian asteartero 19:30etik 21:00etara. 18 urtetik gorako emakumeentzat.

Hasi berriekin beste talde bat antolatzeko ahalegina egin nahi da. Animatu eta izen eman ezazu Udal Bulegoetan!

MUJER Y PALA

ANÍMATE A PRACTICAR
ESTE INTERESANTE DEPORTE

PAREKIDETASUNA

2020-10-21

TERTULIA FEMINISTA 19:00etan
Plazida Otañon. Zer da feminismoa? Nola ulertzen dugu feminista izatea? Zatoz zure zalantzak partekatzeraz!

TERTULIA FEMINISTA

2020-10-28

ZINEGOAK, BILBOKO 17.
GAYLESBOTRANS NAZIOARTEKO
ZINEMA ETA ARTE ESZENIKOEN
JAIALDIKO LAN HOBERENEN
SORTA
Plazida Otañoko gela balioanitzean
19:00etan.

2020-10-16:

GURETZAKO emakume
atzeritarren topaketa 10:30ean
Atxulondon.

¿MUJER Y EXTRANJERA?

ESTE ES TU ESPACIO.



KMak ZIZURKILEN



2020-09-28/2020-10-03:
ERAKUSKETA:

KILOMETROAK HISTORIAN ZEHAR,
Atxulondo Kultur Etxean.

Mendimetroak:
Gure inguruko bazterrak
ezagutzeko txangoak: zure
mailako txangoa egin eta
Kilometroak dendara
joan zaitez
zure opariaren bila!
Urriaren 3 arte

Korri, pumpa, ttak.

Sarrerak: Iriarte etxean,
Amasa kafetegian,

Kilometroak.eus webgunean

2020-10-02

KILOMETROAK:
BERTSO SAIOA /BERSOLARIS
19:00etan Intxaur Frontoian.
Bertso saioa "Pello Mari Otaño BEKA"

Amets Arzallus
Maialen Lujanbio
Oihana Iguaran
Haritz Mujika
Anjel Mari Peñagarikano

Gaia: " Zirtotsak"
Gai jartzailea: Amaia Agirre